begirada

89

abuztua
2023

Photo by María Martínez de Artola / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus pegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEAK EAE-KO ESKUALDE ETA KUADRILLETAN. 2022

Begirada honetan, EAEko Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualdeetan eta Arabako kuadrilletan erroldatutako atzerritar jatorriko biztanleen datuak aurkezten ditugu. 2007ko otsailean argitaratu genuen 14. Begiradaren datuak eguneratu ditugu.

Orduz geroztik, EAEko migrazio-fluxuak nabarmen hazi dira, eta aztertu beharra dago atzerritar jatorriko pertsonek Euskal Autonomia Erkidegoan duten banaketa, bai eta eskualde eta kuadrilla bakoitzean duten presentzia ere.

EINek argitaratutako erroldako azken datuen arabera, 2022ko urtarrilaren 1ean 2.208.174 pertsona zeuden erroldatuta Euskal Autonomia Erkidegoan –aurrerantzean, EAEn–, eta atzerritar jatorrikoak ziren horietatik 253.939, hau da, biztanleria orokorraren % 11,5.

Biztanleria osoak eta atzerritar jatorriko biztanleriak lurralde historikoetan duten banaketari dagokionez –1. taula–, Bizkaiak EAEko biztanleria osoaren % 52,0 eta atzerritar jatorriko biztanleriaren % 49,3 du; Gipuzkoak biztanleria osoaren % 32,8 eta atzerritar jatorrikoaren % 32,9; eta Arabak % 15,1 eta % 17,8, hurrenez hurren.

1. taula

Bertako eta atzerritar jatorriko biztanleria osoa, EAEko eskualde eta kuadrilletan (kopuru absolutuak eta ehunekoak), 2022

	Biztanleak guztira	Bertako biztanleak	Atzerritar jatorriko biztanleak		
			Guztira	EAEko ehunekoa	Eskualdeko/ kuadrillako ehunekoa
Araban guztira	334.412	289.324	45.088	17,8	13,5
Añana	9.504	8.479	1.025	0,4	10,8
Aiara	34.105	31.518	2.587	1,0	7,6
Arabako Mendialdea	3.169	2.933	236	0,1	7,4
Guardia-Arabako Errioxa	11.264	9.880	1.384	0,5	12,3
Arabako Lautada	12.659	11.264	1.395	0,5	11,0
Gorbeialdea	10.039	9.256	783	0,3	7,8
Gasteiz	253.672	215.994	37.678	14,8	14,9
Gipuzkoan guztira	724.418	640.746	83.672	32,9	11,6
Donostialdea	332.548	293.757	38.791	15,3	11,7
Goierri	68.529	60.352	8.177	3,2	11,9
Tolosaldea	49.875	44.567	5.308	2,1	10,6
Urola Kosta	76.231	68.982	7.249	2,9	9,5
Debagoiena	62.416	56.216	6.200	2,4	9,9
Bidasoa Beherea	79.539	68.336	11.203	4,4	14,1
Debabarrena	55.280	48.536	6.744	2,7	12,2
Bizkaian guztira	1.149.344	1.024.165	125.179	49,3	10,9
Arratia-Nerbioi	24.159	21.943	2.216	0,9	9,2
Durangaldea	99.315	89.151	10.164	4,0	10,2
Enkarterri	32.128	29.447	2.681	1,1	8,3
Gernika-Bermeo	46.143	41.210	4.933	1,9	10,7
Bilbo Handia	861.050	763.981	97.069	38,2	11,3
Markina-Ondarroa	25.752	22.948	2.804	1,1	10,9
Plentzia-Mungia	60.797	55.485	5.312	2,1	8,7
EAEn guztira	2.208.174	1.954.235	253.939	100,0	11,5

Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

1. mapa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren banaketa EAEko eskualde eta kuadrilletan (%), 2022



Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Atzerritar jatorriko biztanleriak eskualdeetan eta kuadrilletan duen banaketari dagokionez, proportzio handiena probintzia-hiriburuetan dago: Bilbo Handian (% 38,2), Donostialdean (% 15,3) eta Gasteizen (% 14,8) –1. mapa–. Hala, Bilbo Handia nabarmentzen da beste bi hiriburuen aurretik, eta EAEko atzerritar jatorriko biztanleriaren % 68,3 biltzen dute hiruren artean. Atzerritar jatorriko biztanleen % 0,1 eta % 4,4 artean bizi da gainerako eskualdeetan, eta Bidasoa Beherea (% 4,4) eta Durangaldea (% 4,0) dira garrantzitsuenak.

Atzerritar jatorriko pertsonek eskualde eta kuadrilla bakoitzeko biztanleria osoarekiko duten ehunekoari dagokionez, hurrengo sei eskualdeek dituzte ehuneko altuenak, EAEko batezbestekoaren gainetik (% 11,5), faktore ekonomikoengatik, besteak beste. Horietako bi Araban daude: Gasteiz (% 14,9) eta Guardia-Arabako Errioxa (% 12,3) –2. mapa–. Beste laurak Gipuzkoan daude: Bidasoa Beherea (% 14,1), Debabarrena (% 12,2), Goierri (% 11,9) eta Donostialdea (% 11,7). Hala, nabarmentzekoa da Gasteizko kuadrilla, han baitago EAEko atzerritar jatorriko pertsonen proportzio handiena, eta Bidasoa Beherea, mugan.

Bigarren talde batean daude atzerritar jatorriko biztanleak EAEko batezbestekotik behera baina % 10etik gora diren eskualdeak eta kuadrillak: Bilbo Handia (% 11,3), Arabako Lautada (% 11,0), Markina-Ondarroa (% 10,9), Añana (% 10,8), Gernika-Bermeo (% 10,7), Tolosaldea (% 10,6) eta Durangaldea (% 10,2).

Azkenik, eskualde eta kuadrilla hauetan dago atzerritar jatorriko pertsonen ehuneko txikiena, biztanleria osoarekiko: Debagoiena (% 9,9), Urola Kosta (% 9,5), Arratia-Nerbioi (% 9,2), Plentzia-Mungia (% 8,7), Enkarterri (% 8,3), Gorbeialdea (% 7,8), Aiara (% 7,6) eta Arabako Mendialdea (% 7,4).

2. mapa

Atzerritar jatorriko biztanleriak biztanleria osoarekiko duen pisua EAEko eskualde eta kuadrilletan, 2022



Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Migrazio-fluxuen bilakaerari erreparatuta, 1998an, atzerritar jatorriko biztanleria EAEko biztanleria osoaren % 1,3 zen. Eskualde eta kuadrilla guztietan, biztanleriaren % 0,1 eta % 2,0 artean ziren –2. taula–. Migrazio-fluxuak handituz joan ziren pixkanaka, Estatuko oparoaldi ekonomikoaren ondorioz; 2008an, EAEko biztanleen % 6,6 ziren, eskualdeetan % 4,1 eta % 9,5 artean. Ordutik aurrera, migrazio-fluxuak motelago hazi ziren, ekonomia-krisiaren ondorioz; 2015etik aurrera, berriz gora egin zuten; 2019an, biztanleen % 10,1 ziren, eta, adibidez, % 13,2 ziren Gasteizen. COVID-19aren pandemiaren ondorioz, migrazio-fluxuen erritmoa berriro jaitsi zen, 2022ko zifretara iritsi arte.

Azken bi hamarkadetako migrazio-fluxuak pixkanaka hazi dira eskualde eta kuadrilla guztietan, baina bakoitzean desberdin. Azken urteotako bilakaerari erreparatuz gero, 2014rekiko gehien hazi diren eskualdeak Gipuzkoan daude: Debabarrena (+% 3,9), Goierri (+% 3,6), Tolosaldea (+% 3,6) eta Bidasoa Beherea (+% 3,5).

2. taula

Atzerritar jatorriko biztanleen bilakaera EAEko eskualde eta kuadrilletan (%), 2022

% 0-3,9 | % 4-7,9 | % 8-11,9 | >= % 12

	1998	2004	2008	2014	2019	2022
Araban guztira	1,6	4,9	8,5	10,4	12,1	13,5
Añana	1,3	3,6	6,2	8,3	9,1	10,8
Aiara	0,7	1,8	4,1	5,8	6,9	7,6
Arabako Mendialdea	0,8	4,5	6,0	5,8	7,0	7,4
Guardia-Arabako Errioxa	0,6	3,8	8,2	10,2	11,5	12,3
Arabako Lautada	1,3	3,2	6,4	9,0	9,9	11,0
Gasteiz	1,8	5,6	9,5	11,4	13,2	14,9
Gorbeialdea	1,5	3,4	5,6	6,5	7,0	7,8
Gipuzkoan guztira	0,8	3,4	6,3	8,3	10,2	11,6
Debagoiena	0,1	1,9	4,6	6,9	8,5	9,9
Bidasoa Beherea	0,6	5,2	8,5	10,6	12,7	14,1
Debabarrena	0,2	2,7	5,5	8,3	10,7	12,2
Donostialdea	1,2	3,9	6,4	8,3	10,3	11,7
Goierri	0,2	2,5	7,1	8,3	10,3	11,9
Tolosaldea	0,5	2,3	4,6	7,0	8,9	10,6
Urola Kosta	0,6	2,9	5,9	7,4	8,6	9,5
Bizkaian guztira	1,4	3,5	6,3	7,7	9,4	10,9
Arratia-Nerbioi	0,6	2,8	5,4	6,1	7,8	9,2
Durangaldea	1,2	2,8	5,8	7,5	9,0	10,2
Enkarterri	1,0	2,7	5,3	6,8	8,0	8,3
Gernika-Bermeo	1,5	3,4	6,8	8,3	9,4	10,7
Bilbo Handia	1,5	3,6	6,3	7,8	9,6	11,3
Markina-Ondarroa	2,0	4,5	7,4	8,4	10,2	10,9
Plentzia-Mungia	2,0	4,3	6,0	7,1	8,0	8,7
EAEn guztira	1,3	3,7	6,6	8,3	10,1	11,5

Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Jaiotza-eremuen arabera, jatorri nagusia Latinoamerika da (% 52,0) –4. grafikoa–. Hurrengo jatorri garrantzitsuenak, urrutira, honako hauek dira: Magreb (% 14,5), Europar Batasuna (% 14,2) eta, neurri txikiagoan, Saharaz hegoaldeko Afrika (% 7,2) eta Asia (% 6,5). Gainerako eremuek atzerritar jatorriko biztanleen % 5,7 osatzen dute.

Jatorrien banaketa hori mantendu egiten da, batez ere, zenbaki absolututan atzerritar jatorriko pertsona gehien dituzten eskualde eta kuadrilletan, baina aldatu egiten da beste batzuetan. Latinoamerikari dagokionez, Bilbo Handiak (% 59,3), Plentzia-Mungiak (% 58,4) eta Donostialdeak (% 57,8) jatorri horretako pertsonen proportzio handiagoa dute, EAEko batezbestekoa gainditu z. Magrebeko jatorria Arabako kuadrilletan nabarmentzen da: Guardia-Arabako Errioxa (% 44,9), Arabako Lautada (% 39,1), Aiara (% 31,6) eta Añana (% 29,9). Leku horietan, jatorri geografiko horretako pertsonak EAEko batezbestekoa halako bi baino gehiago dira. Europar Batasunean jatorria dutenak EAEko batezbestekoa halako bi dira Goierrin (% 33,7) eta Gernika-Bermeon (% 30,4). Azkenik, Saharaz hegoaldeko Afrikan jaiotako pertsonek presentzia handia dute Markina-Ondarroan, eta eskualdeko atzerritarren % 25,7 dira, EAEko % 7,2ren aldean.

1. grafikoa

Atzerritar jatorriko biztanleria jatorri geografikoen arabera EAEko eskualde eta kuadrilla bakoitzean (%), 2022



Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Atzerritar jatorriko populazioa sexuaren/generoaren arabera banatuz, EAEn, oro har, gizonen eta emakumeen arteko oreka dago, nahiz eta emakumeak apur bat gehiago diren (% 52,3). Eskualde eta kuadrilla gehienak ere orekan daude (% 45 eta % 55 artean), baina haietako bitan gizonak dira nagusi: Añana (emakumeak % 43,2) eta Markina-Ondarroa (% 44,3) –3. mapa–. Sexuaren/generoaren araberako banaketa horrek zerikusia du jatorri geografikoarekin, emakumeak gehiago baitira latinoamerikar jatorriko pertsonen artean, eta gutxiago, berriz, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Magrebekoen artean.

Atzerritar jatorriko biztanleria gizonen eta emakumeen artean orekan dagoen eskualde eta kuadrillen artean, gizonezkoak gehixeago dira hauetan: Guardia-Arabako Errioxa (% 48,1); Arabako Lautada (% 48,3), Goierri (% 48,5), Debabarrena (% 48,0). Beste eskualde batzuetan, aldiz, emakumeak gehixeago dira: Tolosaldea, Debabarrena eta Durangaldea (% 50,2); Bidasoa Beherea (% 50,7); Gasteiz eta Urola Kosta (% 51,2); Gernika-Bermeo (% 51,8); eta Debagoiena (% 52,0). Eskualde eta kuadrilla batzuetan are emakume gehiago daude, baina inon ez da % 55 gainditzen: Arabako Mendialdea (% 52,1); Gorbeialdea (% 52,2); Bilbo Handia (% 53,4); Aiara (% 53,8); Enkarterri (% 54,1); Donostialdea (% 54,2); Plentzia-Mungia (% 54,7).

3. mapa

Emakumeen ehunekoa atzerritar jatorriko biztanleria osoarekiko, EAEko eskualde eta kuadrilletan (%), 2022



Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

4. mapa

Jatorriko herrialde nagusia EAEko eskualde eta kuadrilletan (%), 2022



Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Jatorriko herrialde nagusiei erreparatzen badiegu, Maroko da EAEko jatorri nagusia (atzerritar jatorriko pertsonen % 11,7), hogeita bat eskualde eta kuadrilletatik hamabitan –4. mapa–. Kolonbia da autonomia-erkidegoko bigarren herrialde ugariena, eta jatorri nagusia da Gasteizen (% 17,2), Plentzia-Mungian (% 14,9), Bilbo Handian (% 13,6) eta Bidasoa Beherean (% 10,1). Donostialdean, berriz, atzerriko jatorri nagusia Honduras da (% 9,8). Hala, probintzia-hiriburuak dauden hiru eskualde eta kuadrilletan, jatorriko herrialde nagusiak latinoamerikarrak dira. Errumania da jatorri nagusietako bat Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualde batzuetan, hala nola Goierrin (% 26,1), Gernikan (% 25,5) eta Durangaldean (% 15,1). Azkenik, Markina-Ondarroako jatorri nagusia Senegal da (% 23,2).

Eskualde edo kuadrilla bakoitzeko hiru jatorri nagusiak aztertuz gero, lehen aipatu gabeko herrialdeak agertzen dira. Horien artean, aipagarria da Nikaragua, Gipuzkoako eskualdeetan bigarren jatorri nagusia baita, eta hirugarrena Bizkaiko eskualde batzuetan eta EAE osoan –3. taula–. Halaber, Latinoamerikako beste herrialde batzuek presentzia nabarmena dute hainbat eskualdetan: Peru eta Ekuador Araban; Honduras Gipuzkoan; eta Bolivia eta Brasil Bizkaian. Bestalde, Pakistan nabarmentzen da Asiako jatorri bakartzat, batez ere Gipuzkoako eskualde batzuetan eta Arabako Lautadan. Aljeria ere jatorri garrantzitsua da Arabako zenbait kuadrillatan. Azkenik, Europako herrialdeetatik, aipagarriak dira Araban Portugal eta Bidasoa Beherean Frantzia.

3. taula

Hiru jatorri-herrialde nagusiak EAEko eskualde eta kuadrilletan (%), 2022

	1.		2.		3.		Gainerakoak	Guztira
	Jatorria	%	Jatorria	%	Jatorria	%		
Araban guztira	Marruecos	15,4	Colombia	15,4	Argelia	5,4	63,7	100,0
Añana	Marruecos	22,0	Portugal	12,7	Colombia	10,1	55,1	100,0
Aiara	Marruecos	19,7	Perú	15,3	Argelia	9,7	55,2	100,0
Arabako Mendialdea	Marruecos	22,0	Rumania	7,2	Ecuador	6,8	64,0	100,0
Guardia-Arabako Errioxa	Marruecos	42,2	Portugal	13,2	Rumania	6,4	38,2	100,0
Arabako Lautada	Marruecos	29,7	Pakistán	9,0	Argelia	8,2	53,0	100,0
Gorbeialdea	Marruecos	17,0	Colombia	8,7	Portugal	7,0	67,3	100,0
Gasteiz	Colombia	17,2	Marruecos	13,4	Argelia	5,1	64,3	100,0
Gipuzkoan guztira	Marruecos	11,7	Nicaragua	9,0	Colombia	7,6	71,6	100,0
Donostialdea	Honduras	9,8	Nicaragua	9,8	Colombia	8,6	71,8	100,0
Goierri	Rumania	26,1	Marruecos	15,5	Pakistán	6,1	52,3	100,0
Tolosaldea	Marruecos	17,5	Nicaragua	12,4	Honduras	7,7	62,3	100,0
Urola Kosta	Marruecos	14,7	Nicaragua	12,4	Pakistán	7,9	65,1	100,0
Debagoiena	Marruecos	12,9	Colombia	12,0	Pakistán	8,1	67,0	100,0
Bidasoa Beherea	Colombia	10,1	Marruecos	9,1	Francia	7,7	73,2	100,0
Debabarrena	Marruecos	25,6	Nicaragua	10,2	Colombia	5,7	58,5	100,0
Bizkaian guztira	Colombia	12,3	Marruecos	10,4	Bolivia	7,8	69,5	100,0
Arratia-Nerbioi	Marruecos	22,2	Rumania	12,4	Colombia	7,4	58,0	100,0
Durangaldea	Rumania	15,1	Marruecos	14,8	Bolivia	7,4	62,7	100,0
Enkarterri	Marruecos	16,4	Rumania	12,8	Nicaragua	7,8	63,0	100,0
Gernika-Bermeo	Rumania	25,5	Marruecos	6,2	Colombia	5,3	63,1	100,0
Bilbo Handia	Colombia	13,6	Marruecos	9,9	Bolivia	8,5	67,9	100,0
Markina-Ondarroa	Senegal	23,2	Marruecos	8,3	Nicaragua	7,3	61,2	100,0
Plentzia-Mungia	Colombia	14,9	Marruecos	7,6	Brasil	6,7	70,9	100,0
EAEn guztira	Marruecos	11,7	Colombia	11,3	Nicaragua	6,0	71,0	100,0

Iturria: Geuk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Laburbilduz...

- Probintzia-hiriburuak dauden hiru eskualde eta kuadrilletan biltzen dira EAEko atzerritar jatorriko biztanle gehienak (% 68,3), eta gainerako eskualdeetan, berriz, % 0,1 eta % 4,4 artean.

- Biztanleria osoarekiko atzerritar jatorriko pertsona gehien dituzten eskualdeak dira hauek, EAEko batezbestekoa gainditzen du (% 11,5): Gasteiz (% 14,9), Bidasoa Beherea (14,1), Guardia-Arabako Errioxa (% 12,3), Debabarrena (% 12,2), Goierri (% 11,9) eta Donostialdea (% 11,7).

- Atzerritar jatorriko biztanleriaren ehunekoa pixkanaka haziz joan da eskualde eta kuadrilla guztietan: 2014ko % 8,3tik 2022ko % 11,5era. 2014rekiko hazkunde handiena izan duten eskualdeak hauek dira: Debabarrena (+ 3,9), Goierri (+ 3,6), Tolosaldea (+ 3,6) eta Bidasoa Beherea (+ 3,5).

- Eskualde eta kuadrilla gehienetan oreka dago gizonen eta emakumeen artean (% 45 eta % 55 artean), baina gizonezkoak gehiago dira bitan: Añanan (emakumeak % 43,2) eta Markina-Ondarroan (% 44,3).

- Latinoamerika da jatorri nagusia, eta EAEko batezbestekoa gainditzen du Bilbo Handian (% 59,3), Plentzia-Mungian (% 58,4) eta Donostialdean (% 57,8). Magreben jaioak nabarmentzen dira Guardia-Arabako Errioxa (% 44,9), Arabako Lautada (% 39,1), Aiara (% 31,6) eta Añana (% 29,9) kuadrilletan. Europar Batasunetik etorriak nabarmentzen dira Goierrin (% 33,7) eta Gernika-Bermeon (% 30,4). Azkenik, Saharaz hegoaldeko Afrikakoek presentzia handia dute Markina-Ondarroan (% 25,7).

- Maroko da jatorriko herrialde nagusia EAEn eta hogeita bat eskualde eta kuadrilletatik hamaikan. Hala ere, probintzia-hiriburuak dauden hiru eskualde eta kuadrilletan latinoamerikarrak dira nagusi: Kolonbia Gasteizen (% 17,2) eta Bilbo Handian (% 13,6) eta Honduras Donostialdean (% 9,8). Errumania da jatorri-herrialde nagusia Goierrin (% 26,1), Gernika-Bermeon (% 25,5) eta Durangaldean (% 15,1); eta Senegal, berriz, Markina-Ondarroan (% 23,2). Eskualde edo kuadrilla bakar batean ere jatorri nagusia ez den arren, Nikaraguak presentzia handia du zenbait eskualdetan, eta hirugarren jatorri garrantzitsuena da EAE osoan.

Eskualde eta kuadrillen araberako banaketa

EAEko atzerritar jatorriko biztanleen	% 68,3	Gasteiz Donostialdea Bilbo Handia

Biztanleria osoaren gaineko pisua

Atzerritar jatorriko pertsonen ehuneko handienak:

Gasteiz	Bidasoa Beherea
% 14,9	% 14,1

Bilakaera	Debabarrena Goierri Tolosaldea Bidasoa Beherea	→ 2014rekiko hazkunde handiena

Jatorri nagusiak		
	Maroko	12
	Kolonbia	4
	Errumania	3
	Honduras	1
	Senegal	1

Jatorri nagusi hori duten eskualde/kuadrillen kopurua